

INTSUMISOAK GARRASI LARRIA KRISTAUON BIOTZETAN!

Aldizkari honek ematen digun aukera erabiliz gizartean eta kristauon bihotzetan pil-pil dugun arazo baten oihartzun izan nahi genuke. Kartzeletan edo eta auzipeturik dauden intsumisoak gogora ekarri nahi genituzke eta beraiei eta espetxeetan aurkitzen diren gainerako guztiei geure solidaritza eskaini.

Aspaldikoa dugu gure artean objetoreen edo eta soldadutzara joan nahi ez duten gazteen arazo hau. Historian zehar euskaldun gerrazale porrokatu ugari ageri bazaigu ere (esaterako, Ameriketara bereak eta bost egiten), era berean, hainbat eta hainbat ageri zaigu, armadara ez joatearren etxetik ihes egiten ere.

Lehenago Ameriketara joan izaten ziren soldadutzarik egin nahi ez zuten gazteak. Oso ugari izaten ziren Euskal Herriko Hego-Iparraldeko mugetan alde batetik bestera igaroten zirenak ere. Delitu izugarria izan eta beste irtenbiderik ez, eta etxe inguruak utzi eta beste herrialde batzutura ihes egin behar! Ezin etorri, gainera, erretserbaldia (hogeita hamar/berrogei urte) bete arte.

Gutariko gehienok ezagutu izan dugu soldadutzarik ez egitearren herritik kanpora joan izan den bat edo beste. Beste zenbaitek, mende honen hasieratan, soldadutzara joatea zozketa bidez egiten zenean, dirua ordainduz erosten zituzten ordezkioak.

Dena den, azken hamar/hamabost urte hauetan, piskanaka-piskanaka zabalduz joan zaigu soldadutzara joan nahi ez dutenen kopurua. Hori zela eta, soldadutzari uko egite horrek zekarren uholde indartsuari aurre egiteko «Kontzientzia Eragozpen Legea» asmatu zuten objetoreei soldadutzaren ordezkoa ezartzeko.

Armada oinarrizko euskarria duen gizarteak ezin onartu betebeharrak horri uko egiterik! Azken batetan, gazteak soldadutzara bultzatu edo behartu nahi direnez, ordezteko ezarritako legearen bidez, objetore izatea aukeratzen zutenak aldi luzeagoan ihardun horretan lotzea eratu zuten. Orain, horrek konponbiderik ez dakarrenez, Kontzientzia Eragozpen Legea aldatu gurean edo dabilta, erantzunle udalerrriak egin nahirik.

Une honetan hainbat sektore sozialek, politikoeak, judizialek eta elizak berak «injustotzat» jotzen dute lege hori, interes konkretuak tarteko direla, aurkako zer handirik egiten ez badute ere. Argi dago inor ezin dela bere kontzientziaren aurka armak erabiltzera bultzatu. Eta ordezeko ihardunik jartzekotan ezin dela zama handiagoa izan. Baina gizarteari zor zaion zerbitzu sozial hutsa baldin bada, zergaitik gizonezkoek bakarrik? Gezurrezko konponbide gisa bilatu izan diren zenbait adabakik arazo nahastu baino ez dute egin.

Dena den, zenbait gaztek ez dute ordezeko zerbitzurik onartu nahi izan. Ez dute inolazko soldadutzarik onartzen. Eta, esan bezala, gaur egungo estatuaren oinarrizko zutabea den armadari (soldadutzari) uko egitean estatuaren izaera bera ere kolokan jartzen dute. Horrela sortu izan dira, batez ere Euskal Herrian, intsumisoak, hots, oso-osoan armadari ezezkoa ematen dioten gazteak.

Intsumiso hauen aldeko mugimenduak hainbatetan indarra hartu izan du OTAN-en aurkako kanpaina eta IRAK-en aurkako azken gerrate basati, anker, deseustatzailea zirela bide. Gerra horretan gertatuko gehiegikeriak eta bidegabekeriak ikusirik, oraindik areagotu egin izan da inolazko armadarik eta, ondorioz, soldadutzarik nahi ez dutenen kopurua.

Baina armadaren aurkako joera hau ez dugu gazteena bakarrik. Baditugu fiskoaren aurrean beren buruak intsumiso aitortzen dituztenak ere. Bide horretatik sortu izan dira, beren zergetan armada sostengatzeko izan beharreko diruak, gerra egiteko eta miseriak sortzeko erabili beharrean herri atzeratuei laguntzeko erabiltzea erreibindikatzan dutenak. Igaz, ogasunari ordaindu beharra zutenak bakarrik kontutan hartuz (jasotekoa dutenei ez diete agerian horretarako aukerarik ematen) 15.000tik gora izan ziren.

Eta kristuontzat honako hau berri oso pozgarria izan da, hainbat eta hainbat kristau gaztek, batez ere Nafarroan, aitortu baitituzte beren buruak intsumiso. Badugu apaizik ere halakoan artean. Oso-osoan armaden aurka ditugu. Azkeneraino eraman nahi dituzte kristauon Ebanjelioko irakatsiak. Mundu anaikorra eta baketsua egiteko asmo sendoz, armen bideei jarraitu beharrean, bakearen eta solidaritzaren alde apostu egin dutenak ditugu. Zer ederragorik? Zer zuzenagorik? Zer txaloga-riagorik?

Joera horri eusteagatik hainbat eta hainbat auzipetu dituzte azken aldi honetan eta gaizkile batzu balira espetxera eraman ere bai. Idazki hau idazten ari garen egun honetan San Sebastian gogoratzen dugu. Berau, isilean kristau izanik, gerran inor hil nahi ez eta harako ausardia hori bere odolez ordaindu zuen erromatar kristau gudalburua dugu. Lehen kristauak, benetan eredu ederrak eskaintzen dizkigute, mendez mendeko ibilaldian haien jarraitzaileok maiz ahaztu izan ditugun arren.

Gure elizetan sarri salatu izan da, munduan armetarako erabiltzen den dirua hor-hemen beharrizanetan daudenei laguntzeko erabiliko balitz, bazter guztietako gose-egarririk asetu eta gaisotasun gehienak desagertuko lirateela. Hala ere, gizakion artean armen indarkeria ageri zaigu jaun eta jabe. Zenbait eta arma ugariago eta indartsuagoak eta are errespetuagoak ingurukoan artean, nonbait! Indarra ageri zaigu gizarte aurreratuetan jaun eta jabe lege nagusi eginda.